

RAÚL DOMÍNGUEZ

2014.11.25 - 2015.01.11

HURRENGO ERAKUSKETA

ERIKA EDE 2015eko urtarrilaren 13tik otsailaren 15era

rekalde

Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao
Tel. +34 94 406 85 32
www.salarekalde.bizkaia.net

Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30
Igande eta jai egunetan: 10 - 14
Astelehenetan itxita

Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h
Domingos y festivos: 10 - 14 h
Lunes cerrado

Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h
Sundays and holidays: 10 - 14 h
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



rekalde



Euskera

RAÚL DOMÍNGUEZ

2014ko azaroaren 25a – 2015eko urtarrilaren 11

• Rekalde Aretoak **Raúl Domínguez**en (Barakaldo, 1984) erakusketa aurkezten du. Bere azken lanen aukeraketa bat du erakusgai, 2013. eta 2014. urteen artean egindako marrazkiena. Egin eta desegiteko, marraztu eta ezabatze nora ezak gidatzen du artista honen sorkuntza-prozesua, eta, batzuetan, “ustekabeko” emaitzak lortzen ditu horrela, irudi freskoak eta bat-batekoak sortzen baititu, laburbiltzeko ahalmen handikoak eta ehundura ugariak.

• Artista Arte Ederretan lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatetik. Arkatza, ikatz-ziria eta olio erabiltzen ditu marrazteko. Ideia edo gogoaldarte bat izaten da beti abiaburua, eta paper batetik bestera eramaten du dena, irudia ahalik eta gehien fintzeko. Raúlek azaltzen duenez, marrazki txikiak eginez hasi ohi da lanean, gogoetak jasoko edo idatziko balitu bezala; gero, formatu handiagoetara jotzen du, eta hor, marrazki, keinuak, orbanak, zirriborroak eta aztarnak metatzen dira, eta “ehundura gisa sentitzen den irudi bat” zehazten dute pixkanaka.

• Paisaia abstraktuaren eta figurazioaren artean mugitzen dira Raúl Domínguez lanak, eta naturaren maila desberdinak irudikatzen dituzte, maiz pizgarriak diren bilaketan eta azterketan bidaia bati ekiteko gure begiradak begietsi ahal dituen tokiak eta lurak.

rekalde Alda. Recalde, 30 - 48009 Bilbao - Tfno. +34 94 4068532 - www.salarekalde.bizkaia.net

ERAKUSKETA

Erakusketa honetan bildutako marrazkiak era askotakoak dira gai, formatu eta teknika aldetik; eta hori guztia harremanetan jarri, eta espazioan kokatzean, paisaia bat eratzeko ahalegina sumatzen da. Lan guztiak paretaren gainean paratuta daude zuzenean, sarritan markoan sartu gabe, marrazkiaren errealitate materiala eskura eduki ahal izateko.

Artistak baliabide tekniko ugari eta erregistro desberdinak erabiltzen ditu marrazkietan, irudiak eraikitzeke. Marrak, orbanak eta zirriborroak metatzen ditu, eta, era horretan, harremana eraikitzen du paisaiaren aztertzen eta formen eta marrazteko ekintzak berak dituen horien artean. Figurazioen atarian kokatzen da batzuetan; urrutikoa eta hurbilekoa plano berean kokatzen dituzten ehundurak dira bere irudiak.

Idea edo gogo-aldarte zehatz batek gidaturik, artistak nora ezean abiatzen du prozesua, eta horren emaitza ez dator beti bat hasierako ideiarekin. Inguruko espazioa ikertzean eta ibilaldi mentala egitean, formatu txikiko lehen marrazkiak sortzen dira, xehetasun hutsalak edota paisaiaren eta eremuen zati nimenioak jasotzen dituzten oharren gisa... eta artxibatu egiten ditu, espazio horietan egiten dituen argazkiak bezala. Horiekin guztiekin, formatu handiagoko marrazki bat eratzen du azkenik, eta horrek marraztu aurreko ekintza guztien esperientzia islatzen eta laburbiltzen du bere baitan.



Masa madre, 2013-14
209 x 151 zm. Olioa, ikatz eta lapitz paperean

Raúl Domínguez marrazki hauek ekialdeko halako kutsu bat dute. Berak azaltzen du hurbil dagoela Txinako pintura klasikoko marrazketaren ikuspegitik, marraren batasunaren esku uzten baitu marrazkiaren eta kolorearen, ilunargiaren eta bolumenaren arteko gatazka konpontzeko lana. Era berean, inguruneaz eta bere osagai ugarietz egiten duen ikerketak eta bizipen horren ardatz gisa hartutako ibilaldiak, nolabait ere, Japoniako haikuen tradizioarekin uztartzen dute.

José Díaz Cuyás-en hitzetan, “Raúlek orube hutsetatik, zerbitzuguneetatik edota trafikoaren hondar-guneetatik egindako ibilaldiak islatzen dituzte bere



Dos orillas, 2014
165 x 113 zm. Ikatz eta grafito paperean

marrazkiek. Hor, natura eta materia zaborretik hurbil-hurbil goratu ahal dira. Raúlen zirriborroak orientazioko plano soilak dira, mapak. Baina ez zentzu modernoan, bidaiariaren ekintza ezabaturik duen horretan, garai bateko mapa zaharren zentzuan baizik, haietan tokia ibilbide gisa baizik ezin baitzen ulertu: hemendik hara “cementorro”, “lluvias”, “vómito”, “autopista”.

Marrazki bakoitza gonbidapen bat da bere ibilbideari jarraitzeko, eta paisaia zeharkatzeko gorputz-ekintzak antolatzen du segida, tokiak ondo-ondoan jartzen ditu planoaren gainean.

ARTISTA

Raúl Domínguez (Barakaldo, 1984) Arte Ederretan lizentziaduna da UPV/EHUtik. Marrazketa da bere praktika artistikoaren ardatza, baina, naturan eta ingurumenean espezializatutako irudigile gisa, hainbat argitalpen zientifikorekin aritu da lankidetzan, ingurumen- eta arte-hezkuntzako proiektuetan hartu du parte, ikastaroak eta tailerrak eman ditu –adibidez, *Dibujo Radical*, Rosa Parmarekin batera, Bilboko Puerta Espazioan (2014)– eta informazioko-taulak irudiztatu ditu.

Hainbat beka eskuratu ditu, bestak beste, Bizkaiko Foru Aldundiaren Arte Bisualetarako Beka (2014) eta Eusko Jaurlaritzaren Sorkuntza Artistikorako Beka (2012).

Bere azken erakusketen artean, talde-erakusketa hauek nabarmentzen dira: *Re-Ilustrazioa*, Ángela Palaciosekin, Cristina Enea Fundazioan, Donostia-San Sebastián, eta *First Thought Best*, Artiumen, Vitoria-Gasteizen, Eremuak programaren barruan, biak 2014an. Aurten jarri du bakarkako lehen erakusketa Bilboko Carreras Mugica galerian.

Irudigile gisa, *El día de la rana roja* haurrentzako liburua argitaratu du (a fortiori arg., Bilbo, 2005), eta La lavandera argitaratze-proiektua sortu du Elena Aizkoarekin batera (2013) eta marrazki-liburu bat argitaratu du bertan. Horrez gain, Pablo Marte artistaren “pretty woman” argitaratze-proiektuan hartu du parte, *Pretty woman* liburuarekin (Consonni arg., Bilbo, 2014).